



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea:
2026AAH20005

Espediente zk.: 2026AAH20005

Gaia: Laba Gravel topaketaren 5. edizioa

Eskatzailea: Laba Gravel Txirrindulari Elkartea **IFK:** G24793853

ZUZENeko DIRU LAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEKO HITZARMENA

Andoainen, sinaduraren datan.

Bildurik:

Batetik, **Andoni Alvarez Lete** Jn., Andoaingo Udaleko Alkatea, Andoaingo Udalaren izenean eta ordezkari gisa, Toki Jaurpideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legean xedatutakoaren arabera.

Eta Bestetik, **Ana Maria Nanclares Formoso** And., NAN ***5644** duena, Laba Gravel Txirrindulari Elkartearen lehendakari gisa.

Bertan da baita ere Udaleko Idazkaria den **Unai Recondo Pérez jn.** Egintzaren fede emateko.

Bi aldeek elkarri behartzeko nahikoa gaitasun juridiko aitortzen diote eta jarraian aipatzen denaren arabera ekiten dute:

Administrazioko aurrekariak

1. Andoaingo Udalak 2026-2028 aldirako DPE-Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen 2026-05-27ko 2026/1500 alkate-dekretuaren bitartez.
2. Andoaingo udalak duen jarduera egiteko eskumena (2/2016 Legearen 17.1.19 artikulua) eta organo emailearen eskumena (2. 7/1985 Legea), DLOren 9.4 artikulua eta 40/2015 Legearen 49 artikulua finkatzen dutena da.
3. Laba Gravel Txirrindulari Elkartea irabazi asmorik gabeko elkarte da, Andoaingo Gudarien Etorbidea 17, 4 esk-an egoitza duena eta txirrindularitzako gravel modalitatea sustatzea du helburu.
4. Laba Gravel Txirrindulari Elkartek Laba Gravel topaketaren 5. Edizioa antolatuko du



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea: 2026AAH20005

aurten, alegia, Andoainen 2026ko maiatzaren 30ean.

5. Hitzarmen honen helburua Laba Gravel Txirrindulari Elkartea eta Udalaren arteko harremana erregulatzea da, 2026ko maiatzaren 30ean Laba Gravel topaketaren 5. edizioaren antolaketarako.
6. 2026/01/19ko datarekin Laba Gravel Txirrindulari Elkartek laguntza ekonomikoa eskatu du antolaketak eragindako gastuei aurre egiteko, 2.000,00 euro eskatu dituzte.
7. Laba Gravel Txirrindulari Elkartek 2026ko maiatzaren 30ean Laba Gravel topaketaren 5. edizioa antolatzeaz arduratuko da.
8. 2026ko Andoaingo udaleko aurrekontuetan, "Laba Gravel" izeneko partida bat dago: 2.000,00 eurokoa 1 1000 481.342.00.08.2026 zenbakia (215 kodea) duena.
9. Laba Gravel Txirrindulari Elkartek aurkeztutako eskaera ikusita, eta gastuen eta dirusarreraren behin betiko aurrekontua kontuan hartuta, 2026. urteko aurrekontuen kargu, 2.000,00 euroko diru laguntza ematea onartzea, 2026ko maiatzaren 30ean antolatuko den Laba Gravel topaketaren 5. edizioarengatik.
10. Andoaingo Udalak 2026-2028 aldirako DPE-Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen 2026-05-27ko 2026/1500 alkate-dekretuaren bitartez.
11. Eman beharreko ekarpen ekonomikoak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 2.1 artikuluko baldintza guztiak betetzen ditu, diruzko xedapen publikoa baita, kontratuzkoa ez dena, eta udalerrri honen gizarte, kirol eta ekonomia interes argiari mesede egiten dion berariazko jarduera finalista bati zuzendua.

Ekarpen horrek ez du merkataritza itzulerarik sortzen, ezta zuzeneko zerbitzurik ere toki-erakundearentzat berarentzat. Udalak ez du ondasunik edo eskubiderik eskuratzen, baizik eta klubak/antolatzailerak sustatutako beste ekimen baten erakunde bultzatzaile gisa jarduten du.

Jasotako funts publikoak modu finalista eta eksklusiboan lotuta daude LABA GRAVEL probaren antolaketa eta garapen kostuak ordaintzera, hala nola kronometrajea, aseguruak, hornidurak, bide segurtasuna eta zerbitzu medikoak, aurkeztutako aurrekontu banakatuaren arabera.

Eman beharreko ekarpen ekonomikoak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 2.1 artikuluko baldintza guztiak betetzen ditu, diruzko xedapen publikoa



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea: 2026AAH20005

baita, kontratuzkoa ez dena, eta udalerrri honen gizarte-, kirol- eta ekonomia-interes argiari mesede egiten dion berariazko jarduera finalista bati zuzendua.

Ekarpen horrek ez du merkataritza itzulerarik sortzen, ezta zuzeneko zerbitzurik ere toki-erakundearentzat berarentzat. Udalak ez du ondasunik edo eskubiderik eskuratzen, baizik eta klubak/antolatzaileak sustatutako beste ekimen baten erakunde bultzatzaile gisa jarduten du.

Jasotako funts publikoak modu finalista eta eksklusiboan lotuta daude LABA GRAVEL probaren antolaketa eta garapen kostuak ordaintzera, hala nola kronometrajea, aseguruak, hornidurak, bide-segurtasuna eta zerbitzu medikoak, aurkeztutako aurrekontu banakatuaren arabera.

Proba honek bizi-ohitura osasungarriak eta txirrindularitzaren praktika sustatzen ditu udalerriko ingurune naturalean.

Probak beste herri batzuetako parte-hartzaileak eta laguntzaileak erakartzen ditu, herriko merkataritza eta ostalaritza dinamizatuz asteburuan zehar.

Graveleko modalitatea denez (pistak eta bideak), ingurumenarekiko errespetua sustatzen du eta inguruko landa eta paisaia ondarea ikusarazten du.

Azaldutakoaren arabera Andoaingo Udalak eta Laba Gravel Txirrindulari Elkarteak erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, eta hitzarmenak ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldeen konpromisoak diru laguntza ematea burutu dadin.

Hitzbaketak

1. HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmenaren xedea da 2026ko maiatzaren 30ean Andoainen garatuko den Laba Gravel topaketaren 5. edizioaren antolaketak eragindako gastuei aurre egiteko 2.000,00 euroko diru laguntzaren baldintzak eta konpromisoak eratzea.

2. AURREKONTUA ETA FINANTZIAZIOA.

Diru laguntzaren gehieneko diru kopurua 2.000,00 eurokoa izango da, 1 1000 481.342.00.08.2026 partidaren kargura.

3. HITZARMENAREN IRAUPEAN



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea: 2026AAH20005

Lankidetza hitzarmen hau indarrean sartuko da hitzarmena sinatzen den egunetik eta kirol ekintzaren likidazio zuriketa egiten denean amaituko da.

4. ANDOAINGO UDALAREN KONPROMISOAK

- a) Laba Gravel Txirrindulari Elkarteari 2.000,00 euroko diru laguntza ordainduko zaio era honetan: 1.200,00 euro (%60), hitzarmena sinatu ondoren, eta diru laguntzaren diferentzia, 800,00 euro (%40) epean aurkeztu behar duten likidazioa eta zurigarriei oniritzia eman ondoren.
- b) Udalak egitaraua burutzeko Laba Gravel Txirrindulari Elkarteari eskatutako beharrezko baimenak emango ditu.

5. DIRU LAGUNTZAREN ENTITATE ONURADUNAK HARTURIKO KONPROMISOAK.

Hitzarmen honi jarraiki diru laguntzaren onuradunak hitzez harturiko konpromisoak hauek izango dira:

a) Laba Gravel Txirrindulari Elkarteari ekimena garatzea, aurkezturiko dokumentazioaren arabera. Proiektua hitzarmen honekin batera doa eranskin gisa, eta aurreikusiriko epean gauzatuko da.

b) Beharrezkoak diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu dituzte.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzen dituen 10/2015 Legearen helburua betetzea, hau da, ziurtatzea jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduerak garatzerakoan bermatzen direla partaide eta ikusleen segurtasuna eta osotasuna, eta herritarren bizikidetza ere, eta ez dela ordena publikoa hausten.

d) Ordenantzan eta Legean onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko dituzte, eta batez ere:

- Diru laguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta diru-laguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea:
2026AAH20005

- Beste diru laguntza batzuk jasotzen baditu diru-laguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Ordainketak egiteko, zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren arlokoetan egunean daudela egiaztatzea.

- Kontabilitate liburuak izatea, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako kontu ikuskaritza eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

- Jasotako diru kopuruen aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

e) Jasotako diru kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

f) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 25. artikuluari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, beren gobernu-jarduna zuzenduko dute, herritarrek jarduera fisikoa eta kirola egin ahal izateko euskararen erabilera sustatzeko.

Elkartearen jardun subentzionatuetan argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko du, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko duelarik, betiere mezuaren hartzailen hizkuntza ezaugarriak kontuan hartuz.

Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez emango diren mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira. Euskaraz eta gaztelaniaz egin behar dira adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari emanez lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak baitira.

Nolanahi ere, Andoaingo Udaleko Euskara departamenduaren jarraibideak beteko dira.

g) Berdintasunerako klausula: Diru laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea: 2026AAH20005

Bizitzetarako testu bateginean ezarririkoak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoa betetzeko, dirulaguntzak ematean ezarritako betebeharrak bete direla justifikatzeko memorian sexuaren arabera bereizitako informazioa emango zaie emandako zerbitzuaren azken onuradunei edo erabiltzaileei, erakundearen titularrei eta erakundeko plantillari, eta, hala badagokio, diru laguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatutako erakundeari.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza eta ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta genero-identitate aniztasunerako balioak sustatzea.

Udalak bultzaturiko edo hartutako genero indarkeriaren aurkako neurri bereziak edo martxan jarritako kanpainak zabaltzen parte hartze aktiboa izatea.

h) Ingurumenaren alorreko klausula: Diru laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, honek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugak gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian, Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, %100ean birziklaturiko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

i) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irradi, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota uztea proiektua finantzatzeko Andoaingo Udalaren lankidetza, esaldi honen arabera: "Andoaingo Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarrria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Andoaingo Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

Egitarauetan, kartel nahiz programetan, Andoaingo Udalaren laguntza azaltzea modu berezi eta argian.

Edozein euskarri inprentara bidali aurretik, Udalari PDF formatuan bidaliko diote honek azken oniritzia eman eta sareetan zabaltzeko.

Behin inprentatik jaso ondoren, paperezko euskarriaren ale bat Allurralde kiroldegia egoitza



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea:
2026AAH20005

duten Udalaren Jarduera Fisikoa eta Kiroleko bulegoetan uztea.

6. DIRU LAGUNTZARI EGIN BEHARREKO JARRAIPENA ETA JUSTIFIKAZIOA.

Andoaingo Udalak, Jarduera Fisikoa eta Kirola saileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru laguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Diru laguntzaren entitate onuradunak, 2026/10/30 baino lehen, Udalean aurkeztu beharko du diru laguntzaren xede duen proiektuaren garapenaren memoria bat. Bertan Laba Gravel Txirrindulari Elkartearen ekimena burutzeko gastuei buruzko azalpenak emango dira.

Gastuak egiaztatuko dira ordain agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru laguntzaz gain, finantzatu direnean norberak dituen diru sarrerekin edo bestelako diru laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

- Gastuak: izandako gastu guztien likidazio zerrenda bat aurkeztuko da, eta zerrendan azaltzen den zenbakiarekin bat etorri behar du gastu hori zurrizteko aurkezten den faktura edo tiketak.

Likidazioetan ondorengo gastu zurigarriak onartuko dira:

- * Nominak.*
- * Gizarte Segurantzako RLC edota RNT dokumentuak.*
- * Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenari buruzko atxikipenen aitortpenaren 110 eta 111 dokumentuak.*
- * Finantza erakundeek egindako Banku zorpetzeko karguen ziurtagiri edo dokumentuak, faktura baten datuak dituztenak, zenbakia eta seriea izan ezik.*
- * Fakturak. Informazio fiskala osoa jaso beharko dute; hau da: ematen eta jasotzen dutenaren identifikazioa (izen deiturak, NA edo IZK, helbidea, telefonoa); faktura zenbakia, data, eta BEZ.*
- * Auto-faktura (hirugarren interesatuak hori kobratzeari dagokion banku mugimenduaren kopiarekin batera joan beharko du, edo horrelakorik ezean, baliokidea den beste edozein dokumenturen kopiarekin).*



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea: 2026AAH20005

** Faktura sinplifikatuak edo tiketak. Bakarrik onartuko dira 400 eurotik beherakoak. Beti ere datu fiskalak barne dituela, ematen duena ondo identifikatuta egon behar du, eta erosketaren kontzeptua identifikatuta azalduko da. Ez dira eskuz idatzitako oharrik onartuko.*

** Sariak: 300€ edo gutxiagoko sarien kasuan, banku transferentziaren ordainagiria eta jaso-agiria aurkeztu beharko dira, 300€ baino gehiagoko sarien kasuan, gainera, dagokion atxikipenaren aitortpenaren Foru Ogasuneko egiaztagiria aurkeztu beharko da.*

** **Lokalen alokairuek** edo amortizazioak sortutako gastuak zuritzeko kontratua, jaso agiriak eta transferentzia-agiria aurkeztu beharko dira. Talde batek bere jabetzako lokala erabiltzen badu edo alokairuan badu, kreditu edo amortizazioagatik ordaindutako kopuruen %50 zuritzea onartuko zaio, **3.000 euroko mugarekin**.*

** **Lokalaren suministroen** kasuan (Telefonia, gasa, ura, argindarra,...) ezin dute diru-laguntzaren %30 baino gehiago izan, izan ere garrantzitsuena iharduera baita.*

** **Elkarte bakoitzak du SGAE erakundeari dagokion kopurua ordaintzeko erantzukizuna.***

- Sarrerak : izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa idatziko ere. Sarrera egiaztagarri ofizialik ez dagoenean, emailearen edo hartzailearen zinpeko idatzia aurkeztuko da.

Balantzea elkarteko ordezkariak sinatuta aurkeztu beharko da.

7. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU LAGUNTZA PUBLIKOekin.

Hitzarmen honek arautzen duen diru laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Andoaingo Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzat hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo diru-laguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea: 2026AAH20005

8. HITZARMENA EZ BETETZEA ETA DIRU LAGUNTZA ITZULTZEA.

Diru laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru laguntza berrikustea edo indarrrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzan eta Legean. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

9. DATU PERTSONALAK BABESTEA.

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzea.

10. LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA.

Diru laguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

11. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Andoaingo udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarrikoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrearen Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetza Hitzarmena

Kodea:

2026AAH20005

40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

12. ESKUMENEZKO JURISDIKZIOA.

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde eskumena.

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den idazpuruan.

Laba Gravel Txirrindulari Elkartea

Andoaingo Alkatea

Ana Maria Nanclares Formoso

Andoni Alvarez Lete

Fede ematen du,

Udaleko Idazkaria

Unai Rekondo Pérez



EKS | CSV: ESKU973e6f3b-dfbd-4ffc-8a06-49e229785e30

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>